

KORONABIRUSA - ATZOKO DATUAK

GIPUZKOAN

2 positibo berri
1.609 hildako
2.305 positibo guztira*
*Hernanin 64 Astigarragan 21

NAFARROAN

9 positibo berri
528 hildako
5.436 positibo guztira
UCIn
Sendatuak EAEn: 18.000 Naf.: 9.250

URUMEA BAILARAKO EGUNKARIA



Hernaniko musker bat eredu, European

HERNANI
MUSKER BERDEA

8-9



'I may destroy you', hilabeteko gomendioa

TELESAILATAN ADI(K)TUA
AITOR CARACCILO

15



«Herritarren erantzuna ezin hobea izan da azken hilean»

URUMEA LANEAN
KOMERTZIOAK

12-13

Liburutegiaren puska bat hartuta, herri txikieta

Etenaldiaren ondoren, martxan da berriro Liburutegi Ibiltaria, Harkaitz Delgadoren eskutik. Makina bat haur eta heldu zituen bere zain Leitzako liburutegiko arduradunak, liburuz eta pelikulaz betetako bi kutxekin iritsi zenean, Goizuetara eta Aranora.

2-5



LGBTBQI+ Harrotasunaren Eguna, biharkoa

URUMEA
LGBTBQI+

6



Kanpoko igerilekuak zabaltzeaz dira

HERNANI
KIROLA

7

Aurtengo San Joan arraroak, 10 argazkitan

Berezko festarik ez da izan, baina kultur ekitaldirik ere ez da faltatu Hernanin, San Joan jaiei dagozkien egunetan. Argazkitan laburbildu ditugu.

HERNANI
SAN JOANAK

10-11

LASTRES Uztailaren 11tik 18ra arte 7 gau H***... MP	UDARA 2020	342 €
LLANES Uztailaren 18tik 25era arte 7 gau APARTAMENTUAK, 4 pertsona		746 €
CANGAS DE ONIS Uztailaren 25etik abuztuaren 1era arte 7 gau.....H***gosaria barne + Sella jaitsiera		322 €
SALOU Abuztuaren 11tik 18ra arte 7 gau...H**** ... PC 2 heldu + 2 ume		904 €
BENALMADENA Abuztuaren 22tik 29ra arte 7 gau. H **** ... PC ... 2 heldu + 2 ume		1318 €
CABO DE GATA Irailaren 12tik 19ra arte 7 gau H**** ... MP		240 €
ANTOLATU ZUEN OPORRAK GUREKIN, SEGURITASUN ETA BERME OSOAREKIN		

www.bidaibila.eus
Taldeentzako prezio bereziak

HERNANI
BIDAIAK
Urbietan 6

943 33 00 49

634 61 52 74

JARRAITU:



«Biztanle kopurua ezin da muga bat izan, herritarrek liburutegi zerbitzua jasotzeko»

Otsailean jarri zuen martxan Harkaitz Delgadok, Leitzako liburutegia, Liburutegi Ibiltaria: «zerbitzuak gehitu eta hobetu egin behar dira», dio berak. Hilean behin egingo du bisita, Aranora eta Goizuetara, eta ekainaren 19an izan zen bigarrenaz, pandemiaren eraginez eten ondoren.

URUMEA LIBURUTEGI IBILTARIA

Goizuetako Plazan kotxea apartatu, maileterotik plastikozko bi kaxa haundi atera, eta karretila moduko batean kargatu ditu Harkaitz Delgadok, Leitzako liburutegiko arduradunak. Liburuz eta pelikulaz beteta daude bi kaxak, eta berehala hustuko ditu, denak Goxaliko lurrean zabaldua.

Hantxe dauzka zain, Goxaliko atarian, makina bat haur eta gazte, eta baita helduak ere. Horretaz konturatu orduko atera zaio irripar bat, maskarillaren azpian, kaxen pisua mugitzeak eskatzen duen esfortzuaz ahaztuta, une batez.

Ekainaren 19a da, Liburutegi Ibiltariaren bisita eguna, Goizuetan; eta bertatik Aranora egingen du bidea gero. Eta herritarrentzat, bereziki gaztetxoentzat, egun seinalatua da hori.

«Oso polita da, hainbeste haur gerturatzen ikustea. Haurrak erakartzen baditugu, helduak atzetik etorriko dira. Guk ez dugu bezeroez hitz egiten, erabiltzaileez baizik; baina bezeroak bezala, landu egin behar dira. Batzuk gerturatzen dira interesa dutelako, irakurtzea gustuko dutelako. Baina gure lana, liburutegia, da eskaintzea produktuak eta zerbitzuak, erakargarriak direnak eta pertsona bezala hezten laguntzen dituenak. Irakurtzen dugunean, beste mundu batean sartzen gara, gozatu egiten dugu».

Auritzberriko Liburutegi Ibiltari 'beteranoa', eredu

Hilean behin egingen du bisita Liburutegi Ibiltariak, Goizueta-

ra eta Aranora; eta baita Aresora ere. «Otsailean egin genuen aurreneko buelta, eta ondoren etenaldia...». Alarma egoeraren eraginez, aurreko ostiralera arte ezin izan zuen beste bisitarik egin liburutegia.

Bigarren bisita izan zen hori, baina duela urtebete hasi zen proiektua prestatzen, Harkaitz Delgado: «iazko ekainean hasi nintzen kontu honi bueltak ematen, eta Leitzako alkatearekin biltzen. Berak oniritzia eman zidan, eta are gehiago, uste zuen eskaini genezakeela zerbitzu hori beste herri batzuetan. Baina beste Udalekin ere hitz egin behar genuen, eta hauteskundeak zetoenez, atzeratu egin zen dena. Ideia garatzen jarraitu nuen bitartean».

«Batzuk harrituta gerturatzen ziren, eta galdetzen zidaten, zergatik egiten dudan, modu boluntarioan izanda. Eta zergatik ez? Pribilegiatuak gara, eta baliatu behar dugu zerbitzuak gehitu eta hobetzeko»

Liburutegi Ibiltaria martxan jartzeko, baina, ez zen hutsetik abiatu: «Nafarroan badago beste Liburutegi Ibiltari bat, Auritzberriko liburutegiak eskaintzen duena, orain dela 20 urte baino gehiagotik. Han ere modu boluntarioan hasi zen dena, eta pixkanaka lortu zuen Udala-



Harkaitz Delgado, Aranoko gaztetxoekin, bakoitzak hartutako pelikula eta liburuak apuntatzen.

ren inplikazioa. Sortu zuten mankomunitate moduko bat, sostengatzeko Liburutegi Ibiltaria. Modu boluntarioan, herri pila batetan banatzen dute etxez etxe. Han herriguneak txikia-goak dira, eta baserriak askoz ere sakabanatuago daude. Beraz, posible da egitea, eta eredu horri jarraituta, eredu on bati, nahi nuen gauza bera egin gure inguruan, Leitzaldean. Eta ikusita nora joan nintekeen eta non dauden kokatuta liburutegiak, bide naturala zen Aresora, Aranora eta Goizuetara joatea. Izan ere, Lekunberrin badago beste liburutegi bat, eta horrek badauka aukera, nahi izanez gero, zerbitzu bera eskaintzeko inguruko herrietan; Araitzen, Betelun...», azaldu du Delgadok.

Zentzu horretan, arraro xamarra izan zen alkateekin egin zuen aurreneko bilera, proiektua aurkezteko: «hauteskundeak izan zirenez aurretik, Mendialdeko alkate berri guztiak azaldu ziren, baita Lekunberri eta ingurukoak ere. Eta esan nuen, sentitzen nuela, baina nik inguruko herrietan bakarrik eskaini

nezakeela zerbitzu hori».

Hortik aurrera, ideia «pixkanaka» garatu, eta urtarrilean egin zituen bilerak, hiru herrietako bizilagunekin, proiektuaren nondik norakoak azaltzeko.

«Zerbitzu ona da liburutegikoa, eta eskaini behar da modu demokratikoago batean»

Herritarrei zerbitzu emateko eta hobetzeko asmoak bultzatu du liburutegia, ekimen honetara: «zerbitzuak gehitu egin behar direla uste dut. Araututa dago, biztanle kopuru batetik gora, liburutegi publiko bat behar duela herriak, eta zerbitzu hori eskaintzen da. Baina zerbitzu on bat da hori, eta eskaini beharko litzateke modu demokratikoago batean. Biztanle kopurua ezin da muga bat izan, liburutegi zerbitzua jasotzeko», azaldu du.

Erronka pertsonala izan da proiektua martxan jartzea, Delgadorentzat: «baina aukera daukadalako horretarako. Babesik gabe, hutsetik ezingo nuke martxan jarri. Une honetan, Goizuetara eta Aranora bisita egiten ari naizen bitartean, zabalik egon

beharko litzateke Leitzako liburutegia, baina Udalak aukera ematen ditu, hango zerbitzua pixka bat murrizteko, baldin bada zerbitzu gehitzeko beste herri batzuetan; eta are gehiago, lau herri hauen artean dagoen harremanarengatik».

«Oso harrera ona izan du Liburutegi Ibiltariak, hasieratik»

Ordu erdiko geldialdia egiten du Liburutegi Ibiltariak, Goizuetan aurrea eta Aranon ondoren, egun berean. Eta ordu erdi horretan, gelditu gabe aritu da lanean liburutegia, bueltatzeko liburu eta pelikulak jasotzen, hartutakoak apuntatzen, bazkide berriak egiten, gomendioak ematen... Eta lan horixe errepikatatu du gero, biztanle kopuruagatik lasaia, Aranon. Baina bietan piztu du interes handia, Liburutegi Ibiltariak: «oso harrera ona izan du hasieratik. Batzuk harrituta gerturatzen zitzaizkidan, eta galdetzen zidaten, zergatik egiten duzu, modu boluntarioan izanda? Eta zergatik ez? Ni ez naiz funtzionarioa,

Kronika

Larramendi 11, Hernani
☎ 943 33 08 99
688 660 714

Eposta:
kronika@kronika.eus,
astigarraga@kronika.eus,
urumea@kronika.eus eta
publi@kronika.eus.
www.kronika.eus

Lege gordailua:
SS-1469/2018
ISSN: 2659-5036

Lan-taldea:
A. Arbelaitz, O. Egaña, I. Goñi, L. Goñi, A. Isasa,
B. Los Arcos, J. Osa,
M. Ramirez de Alda, I. Santa Kruz eta J. Zubitur.

Argitaratzailea:

DOBERA
EUSKARA
ELKARTEA

Larramendi 11, Hernani
☎ 943 33 27 99
Epota: dobera@dobera.eus
www.dobera.eus

KRONIKAK ez du bere gain hartzen egunkari honetako orrialdeetan kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

Laguntzaileak:



Kultura eta Hizkuntza
Politika Sailak
(Hizkuntza Politikarako
Sailburuordetzak)
diruz lagundua.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

TOKIKOM



DOBERA BAZKIDEAK
KRONIKALARIAK

«Nafarroan badago beste liburutegi ibiltari bat, Auritzberriko liburutegiak eskaintzen duena, orain dela 20 urte baino gehiagotik. Modu boluntarioan hasi ziren han ere»

«Zerbitzua gero eta pertsonalizatuagoa da; gidari eta aholkulari lana da gurea, eta horretarako, pertsona ezagutu behar da. Zaila da hutsetik asmatzea»

interinoa naiz; baina ardura haundi bat daukagu. Pribilegiatuak gara gauza askotan, eta hori baliatu behar dugu zerbitzuak gehitzeko eta hobetzeko, eta inoiz ez atzera egiteko. Gertatzen da, kasu batzuetan, funtzionario postua lortuta, uste dutela erosotasuna iritsi zaiela; eta niretzat justu kontrakoa da, konpromisoa heldu da orduan, dauzkazun pribilegio horiek zerbitzua hobetzeko balio dutela erakusteko momentua. Zerbitzua haunditu eta hobetu, bi lan horiek etengabeak dira».

Liburutegi ibiltaria martxan jarri aurretik, Goizuetako bakarren bat azaltzen zen tarteka liburutegira, «Leitzara joaten direlako ikastera». Aranoko inor joaten zenik, ordea, ez dauka gogoan. «Aresokoak bai, gehiago, oso gertu dagoelako. Gainera, Liburutegi ibiltaria bertara joanda ere, berdin-berdin gerturatzen dira gustura, beste esperientzia bat delako liburutegira joatea. Liburuzaina joaten zaie, baina liburutegiko espazioa ez; eta espazio bat izatea eta antolatuta edukitzea, da beste liburuzain bat izatea bezala. Zerbitzua hobe da liburutegian, baina Liburutegi ibiltariarekin, behintzat, zerbitzuaren parte bat nirekin etortzen da herri hauetara».

Eta liburutegiko bazkide kopuruan nabaritu da, horietan izan duen eragina. Baziren Goizuetako eta Aranoko bazkideak,

baina askoz ere gehiago egin dira orain: «%200 haunditu da kopurua. Erantzuna oso ona izan da. Hasieratik egin ziren bazkide berriak, eta haunditzen dijoa. Aurkezpenaren egunean bertan, asko egin ziren bazkide; eta bisita egin dudana bi aldi hauetan, bueltatu naiz lau-bost bazkide berrirekin».

Oso erraza da bazkide egitea: nahikoa da datu pertsonal batzuk ematea; eta 14 urtetik beherakoekin kasuan, gurasoen baimena. «Oso erraza da, libre eta doakoa; eta ez du tramite berezirik eskatzen. Bisita hauetan niregana etorrita, nahikoa».

«Irakurleei gomendioak ematen, behin asmatuz gero, oso fidel bilakatzen dira»

Liburuzainaren eta erabiltzaileen arteko komunikaziorako, WhatsApp edota posta elektronikoa baliatzen dituzte; eta Nafarroako Gobernuak ere ematen du aukera, bere webgunean, internet bidez liburuak eskatzeko. «Baina WhatsApp da gehien erabiltzen duguna, gertukoena. Nik esaten diet zein egunetan etorriko naizen, eta jendea hasten da eskaerak prestatzen, galdetuz egiten... eta hori da bidea. Galdetzen didate, halako liburua edo pelikula daukadan, eta nik begiratzen dut katalogoan, edo beraiek bestela. Eta libre baldin badago, beraien izenean egiten dut erreserba, eta kutxa-



Harkaitz Delgado, liburuak Goxaliko lurrean zabaltzen; eta denak miatzen hasteko irrikaz.

tan sartzen dut. Horrela, Liburutegi ibiltarian ekartzen dut, jaso behar duen pertsonaren izen-abizenekin».

Zerbitzua, gainera, «gero eta pertsonalizatuagoa» dela nabarmendu du Delgadok: «pixkanaka, erabiltzaileak ezagutu ahala, haien bideratutako liburuak ekartzen hasi naiz. Goizuetan, esaterako, badago erabiltzaile bat gustuko duena nobela historikoa, baina Nafarroan giroa; ba harentzako lau-bost nobela ekartzen ditut, estilo horretakoak».

Eta hurrekin ere, berdin: «pixkanaka, ezagututa, badakizu adin tarte batekoak edo besteak ekarri behar dituzun gehiago». Haiekin, «oso gauza bitxia» gertatzen dela kontatu du liburuzainak: «Leitzan gutxien hartzen dituzten liburuak, dira gehien mugitzen ari direnak Aranon eta Goizuetan, Bat Pat eta horrelakoak. Harri garria da, baina adin tartearen eta interesaren arabera, ezberdina da toki bakoitzean. Eta ni pozik, horrela lortzen dudalako Leitzako liburutegiko bilduma

osoa mugiaraztea; ez bada Leitzan bertan, beste modu batean edo beste herrietan».

Berak uste du, zerbitzu guztiek behar dutela izan pertsonalizatuak: «gidari eta aholkulari lana da gurea, eta horretarako, pertsona ezagutu behar da. Zaila da hutsetik asmatzea, hain eskaintza zabala izanda. Gainera, irakurle bati gomendioak ematen, behin ez baduzu asmatzen, bigarren aukera bat eman go dizu akaso, baina gero... Eta aldiz, behin asmatuz gero, oso fidel bilakatzen dira, eta etorri egingo zaizkizu berriro: *aurrekoan oso ona eman zenidan, eta antzekoa nahi dut*. Edo esaten dizute, une honetan ez daudela oso ondo, eta zerbait arina nahi dutela. Gomendatzea da gure lana. Guk ez dugu den-dena irakurri, baina badauzkagu erreferentziak, eta horien arabera ematen ditugu gomendioak. Liburu batetik besterako saltoa ere, gure esku geratzen da askotan», azaldu du.

Izaten dira liburutegiko hartzeko asmorik ez dutenak ere, nekatuta daudelako une horretan: «ba haien artean badaude liburuak, literatura arinagoa, motzagoa, edo laguntzen dutenak ateratzen pentsamendu batzuetatik. Denetik dago idatzita, asmatzea da kontua», dio liburuzainak.

«Liburuzainak bertan egon behar du, erabiltzaileekin; bestela, zerbitzuaren kalitatea asko jaisten da»

Liburutegiarekin, izan da aurrekaririk Goizuetan, Goxalin bertan: liburu lote bat eramaten zuen Gizarte Zerbitzuaren langileak, 20 bat liburu, eta bertan utzi, nahi zuenak batenbat hartu eta irakurritakoan bueltatzeko. «Baina hori ez da liburutegi zerbitzu bat; liburuen atzean dagoen zerbitzua da liburutegikoa; guk egiten duguna, eta behin eta berriro erakutsi nahi

duguna. Horregatik ikusten dut ni etortzeko beharra. Liburuzainak bertan egon behar du, erabiltzaileekin; bestela, zerbitzuaren kalitatea asko jaisten da».

Zenbait erabiltzailek, dagoneko eskatzen dute zein liburu nahi duten jaso, bisita horietan. Baina gainerakoan, Harkaitz Delgadok berak egiten du aukeraketa bat, interesekoak izan daitezkeen horiekin: «denborarekin eta teknologiak lagunduta, jendeak aukera gehiago izango du katalogoak begiratzeko. Ikasiko dute nola bilatu nahi duten hori katalogoan, eta ohitura hartuko dute pixkanaka. Oso erraza da. Askotan, liburudenda bateko eskaparate batean ikusten duzu zerbait, erakargarria egiten zaizuna; eta egin dezakete argazkia atera eta niri bidali, galdetzeko eskuragarri ote dagoen. Eta eskatutako liburu hori ekartzen dudanean, niretzako eta erabiltzailearentzako, da extasi momentu bat. Baina egia da, liburu fetitxe bat dela, eta liburutegian mailegatzeak ez duela kentzen gero liburu hori erostea. Niri gertatu zait, liburu bat irakurri ondoren erostea, norbait gomendatu nahi diozulako, edo oparitu. Nire ustez, honek salmentak haunditzen ditu, eta ez gutxitu. Zenbat eta liburu gehiago hartu liburutegietan, orduan eta gehiago saltzen dira liburudendetan. Liburu onak,



Haurrak bakarrik ez, helduak ere gerturatzen dira liburuzainarengana, bere bisitetan.

IRUBIDE JATETXEA

Zure jatetxea, Epelen



Epele auzoa, 7
943 552 480 - 667 208 702

asko oparitu ditut nik. Liburu on bat irakurtzen duzunean, altxor bat, nahi diozu beste irakurle bati oparitu».

Horretara bideratutako kanpainak ere badira, hain justu, 'Irakurri, gozatu, oparitu' kanpaina bezalakoak. «Aurten ez da egin Koronabirusagatik, baina urtero egiten da udaberrian: zuk irakurtzen duzu liburu bat, erreseina labur bat idazten duzu, eta deskontu bonu bat jasotzen duzu, liburuak erosteko; eta partehartzaileen artean egiten da beste zozketa bat hilean, bonu haundiagoa eskuratzeko. Orain antzekoa egin nahi da, baina internet bidez: esaten duzu zein liburu gustatu zaizun, eta hori etxean jasotzeko aukera daukazu. Gero norberak erabakitzen du, beretzat hartu edo oparitu. Sentimendu batekin lotzen da liburua beti», dio liburuzainak.

«Liburuzaina zara egunean 24 orduz, eta liburuak emango dizkizute kalearen erdian, edo tabernan utzi»

Eta sentitu egiten du bere lanbidea ere, Harkaitz Delgadok; «pa-



WhatsApp erabiltzen dute gehien liburuzainak eta erabiltzaileek, elkar komunikatzeko.

sioa» da berarentzat, lanbideaz gainera: «liburuzaina zara egunean 24 orduz. Eta herri bateko liburuzaina bazara, kalean ere, besteen begitara, liburuzaina zara. Liburuak emango dizkizute kalearen erdian, tabernan utziko dizkizute zuk jasotzeko... Eta niri gustatzen zait. Askotan

ez da zer garen, baizik eta nola ikusten gaituzten. Eta liburuzainak badauka irudi bat, kontuan hartzeko pertsonarena. Liburutegian beti dago jendea Leitzan, hirugarren espazio bat dela esan daiteke. Etxea eta lana edo eskolaz aparte, hirugarren espazioa da, eta jendeak beti

dauka gogoan, errespetatzen du. Horren ardura izatea, asko gustatzen zait».

Errenteriakoa da bera, baina sei-zazpi urte daramazki Leitzan bizitzen, bertakoa baitu bikotea. «Iritsi nintzenean, galdetu nion bertako liburuzainari: 'zer egin behar da zure postua

«Oposaketak dauzkat urrian, plaza lortzeko; eta espero dut horren ondoren Leitzako liburutegian egotea. Pena ikaragarria emango lidake, bertan ez jarraitzeak»

lortzeko?»; eta erantzun zidan, 'asko ikasi'. Ba horixe egin nuen, asko ikasi, eta iritsi naiz postua lortzera». Ordezkapenak egiteko oposaketak gainditu zituen, eta urrian egingo du plaza lortzekoa: «Nafarroan liburuzain postuak eskuratzeko oposaketak izango dira, eta 12 plaza dira guztira; horietako bat, Leitzako liburutegirako. Espero dut horren ondoren ere, hemen jarraitu ahal izatea. Pena ikaragarria emango lidake, ez jarraitzeak. Baina horregatik jarri nahi nuen Liburutegi Ibiltaria martxan, hurrengo iristen denean abian egoteko. Pena litzateke segida ez ematea honi; eta aldiz,

«Sekulako gogoa geneukan liburutegira bueltatu eta dena martxan jartzeko; gure lanean, telelanak ez du funtzionatzen»

Alarma egoeran liburutegiko jarduna etenda, «gaizki pasatu» duela aitortu du Harkaitz Delgadok: «liburutegian dago gure lana, ez etxean. Eta irrikitan nengoen Liburutegi Ibiltaria berriro martxan jartzeko».

LIBURUTEGIAK ALARMA EGOERA

Jarduera gehienak bezala, eten egin da liburutegia ere, Koronabirusaren ondorioz. Alarma egoera ezarri zen momentuan eman zieten ixteko agindua, eta astebetez utzi zieten joaten beraiei, liburuzainei, hango lanak egitera: «gure lana oso presentziala da; jakin behar dugu liburuak han daudela, eta ikusi egin behar ditugu, apartategian bere tokian. Etengabe egin behar ditugu xaguketa lanak deitzen ditugunak. Liburu zaharrak atera, kalitatea mantentzen duten ikusi...», azaldu du Harkaitz Delgadok.

Baina lan horiek egiten hasi, eta astebetera esan zieten ezin zirela liburutegira joan, ezta horretarako ere; eta etxetik aritu beharko zutela: «nik gaizki pasatu dut. Etxetik egin genezakeena zen sare sozialetan pixka bat saltseatu eta aholku batzuk eman, baina horrela ez daukazu erabiltzaileen

erantzunik, edo irripar bat, ondokoa emozionatzeko aukera hori. Sentsazioa neukan, ez nintzela zerbitzua ematen ari. Eta horrela pasa da konfinamendu osoa, bi hilabete. Benetako zerbitzua eten egin zen».

Ekainaren hasieran ireki zuen berriro liburutegia: «buel-tatu bezain pronto hasi gara berreskuratzen harremana erabiltzaileekin, baina poliki dijoa. Eraikin publikoa da, eta baldintzak zorrotzak dira. Garbitu egin behar dugu, desinfektatu; erabiltzaileek ez daukate sarbide zuzena liburutetara, eta nik eraman behar dizkiet... Aste honetan jarri ditugu martxan ordenagailuak eta ikasteko tokiak, baina oso kontuz, eta maskarillarekin ibili behar da liburutegi barruan. Haur txokoa ere itxita daukagu. Baina jendea ari da gerturatzen, eta neurriak errespetatuta, beldurra galtzen. Eta espero dut bueltan ez etortzea ezer, bigarren kolpea beti izaten baita



Maskarilla eta gel hidroalkolikoa erabili behar ditu etengabe, liburuzainak ere.

okerragoa. Aurrenekoa desorekatzen bazaitu, bigarrenak akaso bota».

Liburu berriak ere ezin izan ditu eskatu, «eta hori pena da. Askotan daukazu buruan liburu mota bat, adibidez Leitzako eskolan lantzen ari diren gai batekin lotutakoa. Harreman haundia daukagu eskolarekin. Erlauntzak lantzen ari ziren orain, eta horiei buruzkoak ari nintzen bilatzen. Gustura ari ziren haurrak, eta ikaragarriko pena eman dit».

Bi astez konfinatuta, liburuak Liburutegiko espazioetan ez ezik, liburutegian ere hartu dute neurririk: «neurri nahiko

zorrotza eta gogorra, bi astez konfinatuta egon behar direla liburuak. Bueltatutako liburuak gorde behar dira, horretarako prestatutako toki batean, eta bi astez ezin ditu inork hartu. Beste toki batzuetan hasi dira astebetera murrizten, eta pentsatzen dut hemen ere laster egingo dutela. Gainera, diotenez, paperean gutxi irauten du birusak, 2-5 egun».

Jarraibideak eta neurriak, gainera, nekez jaso dituztela adierazi du Delgadok: «gobernuen atzetik joan behar izan dugu, jakiteko nola jokatu behar dugun. Eman dituzten aginduek, ez dituzte inoiz zuzenean kontuan hartu libu-

rutegiak. Neurri sorta ederra ateratzen zuten, baina liburutegiak ez zituzten aipatzen, edo oso modu zehaztugabea. Ez da erraza izan jakiten, zer egin behar genuen. Estatuko beste liburuzain batzuekin, elkarri galdezka aritu gara, eta konturatu gara toki bakoitzean gaudela fase desberdinetan. Liburutegiak, gaude oraindik lehenengo fase aurreratuan, ez gara iritsi bigarren fase oso batera. Oso poliki doa».

Horregatik hartu du «gogo haundiz», berriro irekitzeko aukera: «Sekulako gogoa geneukan liburutegira bueltatu eta dena martxan jartzeko, bertan dagoelako gure lana, eta ez etxean. Eta irrikitan nengoen Liburutegi Ibiltaria martxan jartzeko. Auritzberrikoa ere jarri da martxan, eta jendearen harrera eta gogoa ikaragarria izan zen, hemen bezala», dio.

Delgadoarentzat, orain hasi da zerbitzua ematen: «gure lanean, telelanak ez du funtzionatzen; lan presentziala behar dugu, harremana eta komunikazioa. Informazio kudeatzaile gara, eta informazio hori ez badugu partekatzen, galdu egiten da, ez da aprobetxatzen. Gu gara kanal bat, informazio hori zabaltzeko», dio berak.

satisfakzio haundia, Liburutegi Ibiltariarekin jarraitzea, beste batek plaza hartuta ere. Horrek esan nahiko luke, ez gaudela bakarrik, erokeria hauetan».

Historia ikasi zuen Harkaitz Delgadok, eta bukatu zuenean, Bibliotekonomian graduondokoa jarri zuten martxan, bi-hiru urtekoa: «sartzekotan egon nintzen, baina lanean hasi eta ezin izan nuen. Eta orduan, beste ikastaro bat egin nuen, urtebetekoa, liburutegian izateko. Euskaltegi batean aritu nintzen lanean gero, bederatzi urtez. Eta Leitzara mugitu ginenean, ikastaroak eginda neuzkanez, hasi nintzen liburutegietan lanean». Orain ari da Bibliotekonomia ikasten, online, duela bi urtetik.

Leitzakoa ez zen izan aurrenekoa, ordea: «2014an hasi nintzen liburutegian bezala, Zarautzen, eta bi urte eta erdi egin nituen bertan. Urnietan eta Baztanen ere egon nintzen ondoren, eta 2018ko urtarriletik nago Leitzako liburutegian. Zortea eduki dut, eta Hernanin ere lan egiteko puntu-puntu egon nintzen, baja bat kubritzeko; baina ni hasi aurreko egunean hartu zuen alta».

Baztango liburutegian hasi eta berehala, gainera, Asnabi elkartearen sartu zen, Nafarroako liburutegien elkarte bakarra; «eta zuzendaritza taldean sartu nintzen zuzenean. Hiru urte daramazkit bertan, administrazioarekin borrokan, gure baldintzak hobetzeko», azaldu du.

«Oso errentagarriak dira liburutegiak, zerbitzu ona eskainiz gero»

Papereko liburuaren eta irakurgailu elektronikoaren arteko aukeraketa izaten da, gaur egun, irakurleen artean. Baina Delgadok ez du uste eBookak ezer kentzen dionik papereko liburuari eta liburutegiei: «alderantziz, gehitu egiten du. Irakurri nahi duenak, egin dezake eBookean edo paperean. Niri beldur gehiago ematen dit, eskoletan nola lantzen den irakurzaletasuna, edo sozialki nola bultzatzen den kulturaren atal hori. Baina eBookak gehitu egiten du. Liburutegiak berak eskaintzen du eBookak mailegatzeko zerbitzua. Eta ez dago liburuaren krisirik. Egon daiteke editorialen krisi bat, ez zaielako errentagarria ateratzen. Hori beste eztabaida bat da, editorialek gobernuekin hitz egin beharrekoa. Baina liburutegiak ongi erabilita, jendea egiten dugu zaleagoa, gehiago etortzen dira, liburu elektroniko gehiago irakurtzen dituzte, liburu gehiago erosi...».

Zentzu horretan, garbi dauka liburutegiak «oso errentagarriak» direla, «betiere zerbitzu ona eskainita. Azterketa bat egin

«2014an hasi nintzen liburutegian bezala, eta Leitzakoa egon aurretik, Zarautzen, Urnietan eta Baztanen aritu nintzen. Puntu egon nintzen, Hernaniko liburutegian ere lan egiteko»

«Ez irakurtzearekin, asko galtzen da ulermena. Ahoz jasotzen den informazioaren ehuneko oso handi bat, galdu egiten da»

zen Nafarroan, liburutegien baliari buruz; eta argi eta garbi adierazi zuten, liburutegietan inbertitzen den euro bakoitzeko, zazpi euroko etekina jasotzen dela, kultur jardunaldietan edo liburu salmentan».

Paperekoa zein elektronikoa, biak erabiltzen ditu liburutegian: «gehiago naiz liburuaren aldekoa, baina ez dut baztertzen irakurgailu elektronikoa, gutxiago erabili arren. Apunteak irakurtzeko erabiltzen dut gehiago; eta liburuetarako, oporretan bereziki. Gainerakoan, liburu fetitxe bat da. Esku artean edukitze hori, orriak pasatzea... Baina oporretara joateko, beti hartzen dut papereko liburu fin bat, eta liburu potolo guztiak irakurgailuan sartuta».

«Normalean, irakurle denak, liburu bat baino gehiago dauka hasita»

Liburu potolo guztiak dioenean, aldi berean irakurriko dituen horietaz ari da Harkaitz Delgado: «irakurle batek ez du liburu bakarra irakurtzen aldi berean. Gutxi irakurtzen duenak, liburu bat hartuko du, eta hori hasi eta bukatu egingo du. Baina normalean, irakurle batek izaten ditu hasita, erdi bukatuta, irakurtzeko gogoarekin... Mesanotxe bat, liburu betetako zutabe bat dirudiena. Nire inguruko irakurle guztiek hala daukate; hiru, lau, bost, sei, zazpi liburu hasita, aldi berean. Liburu bakoitzak eramaten zaitu mundu batera, edo deskonektatzen zaitu zure mundutik modu batera. Badira nobela luzeak, bi-hiru hilabete beharko dituzunak irakurtzeko; eta nobela motzagoak, astebetean irakurriko dituzunak. Baita arratsalde batean irensten dituzunak ere. Edo poesia liburuak, gaur poema bat eta bihar beste bat irakurriko duzuna. Nik beti daramakit liburu bat motxilan, badaezpada ere; eta irakurgailua liburu beteta. Eta orain, apunteak ere bai, beti gainean», kontatu du.



Zein hartu eta zein utzi erabakitzeko izaten dituzte lanak, Liburutegi Ibiltaria etortzen denean.



Aurretik eskatutako liburuak, bisitaren egunean eramaten dizkie Harkaitz Delgadok, eskatu dituztenei.

ruak, gaur poema bat eta bihar beste bat irakurriko duzuna. Nik beti daramakit liburu bat motxilan, badaezpada ere; eta irakurgailua liburu beteta. Eta orain, apunteak ere bai, beti gainean», kontatu du.

«Liburutegian animatu nahi ditut, horrelako zerbitzuak eskaintzera»

Berak Auritzberriko ereduari jarraitu dion bezala, beste liburutegiei ere luzatu die deia Delgadok: «animatu nahi ditut, horrelako zerbitzuak eskaintzera. Uste dut gure lanaren parte dela dinamizazio lan hori. Horretan inbertitu behar dugu dena, eta dena ez da dirua. Zerbitzu honen kostua, adibidez, kilometrajea besterik ez da. Auritzberriko Liburutegi Ibiltaria duela 20 urte jarri zen martxan, eta ordutik basamortua egon da, ez da besterik jarri martxan. Eta begira Nafarroan badaudela zerbitzurik gabeko herri txiki pila bat. Esango dute, agian ez dutela irakurtzen. Noski, ez bazaie eskaintzen...».

Irakurketa bultzatu eta indartu behar dela uste du Delgadok, ulermena ez galtzeko: «ez badago lanketa bat, eskolen aldetik, gizarteak berak eginda edo ereduak eskainita, jendeak ez du irakurriko. Eta ez irakurtzearekin, ulermena asko galtzen da. Ahoz jasotzen duguna eta ulertzen duguna, edo irakurritako ulertu eta erretentzen duguna, oso desberdina da. Ahoz jasotzen den informazioaren ehuneko oso handi bat, galdu egiten da. Idatzita irakur-

tzen duzunean zerbait, aukera daukazu hausnartzeko, atzera egiteko, eta askoz ere hobea da. Garrantzitsua da hori indartzea. Gaur egun, eskoletan, bideo batekin azaltzea gauzak, oso erakargarria izango da; baina oso axalean geratzen da, eta informazio asko galtzen da».

Esperantzarako atea, behintzat, zabalik dago Aranon eta Goizuetan, ikusita zenbat haur gerturatu zazkion, Liburutegi Ibiltariaren bisitetan. Eta bera pozik, irripartsu. **K**



Hipodromo Etorbidea, 10
LASARTE-ORIA. Gipuzkoa
943 37 36 13

Ordutegia:
09:30-13:30
Aurretiko hitzordua beharrezkoa da
info@noaoa.eus

LGTBQI+ Harrotasun eguna, ospatu eta aldarrikatzeko eguna

Hernani eta Astigarragako Udalek adierazpen instituzional bana onartu dute bihar ospatzen den Nazioarteko Egunerako.

ASTIGARRAGA-HERNANI LGTBQI+

LGTBQI+ Harrotasunaren eguna ospatuko eta aldarrikatuko da bihar mundu osoan zehar, baita Urumea bailaran ere. Horrekin bat egiteko, Astigarragako eta Hernaniko Udalek adierazpen bana onartu dute.

Txomiñenen bihar 'Pride' pelikula eskainiko da

Astigarragan gainera, zenbait ekimen antolatuko dira herrian: Udaletxeko fatxadan LGTBI+ bandera jarriko da; Foru plazan bihar, 22:30etan (euria egingo balu Txomiñenea pelotalekuan) *Pride* filma eskainiko da eta asteartean, ekainaren 30ean, Gaztelekuko nerabeek LGTBQI+ banderaren koloreekin Txomiñenean margotuta dauden eskailerak errepasatu eta beste aldeko eskailerak margo-tuko dituzte.

Hernaniko Udalak herrita-

rrei dei egiten die «LGTBI mugimenduak eta mugimendu feministak gure herri eta hirietan deitutako ekintzetan parte har dezaten, bereziki ekainaren 28an bertan Donostian egingo den kontzentrazioan parte hartzeko».

Hernaniko Udalak

konpromezuak hartu ditu

Hernaniko Udaleko Udaltzatzak konpromezua hartu du honakoa egiteko: LGTBI komunitateak Hernanin izan duen bilakaeraren egoera ezagutarazteko, martxan dagoen *Hernaniko LGTBI+ historia 1969-2019* ikerketaren zabalpena egitea, herritarren eskura jarritz; LGTBI pertsonen eskubideak bermatzera bideratutako neurriak aktibatzea, hala nola, administrazio-formularioetan aldaketak egiten jarraitzea binarismoa gainditzeko; Herriko saltoki eta tabernetan, kontzientziazio

eta formazio kanpainak egitea binarismoaren inguruan, eta instalazio publikoetan aldagelak eta komunak egokitzeko lanketa abiatzea; Hernaniko Udalak Erregistro Zibilari eskatzen dio sexu bereko bikoteekiko diskriminatzailea den baldintza bat (ezkonduta egon behar dute jaioberriak inskribatzeko) ezabatzeko; Hernaniko Udalak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio LGTBien inguruko Euskal Lege Integral bat prestatzeko; Eta Hernaniko Udalak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio LGTBien Euskal Kontseilua sortzeko, espazio hori eragile sozial publikoen eta pribatuen parte-hartze aktiborako gune izan dadin.

Emakumeen berdintasunaren aldeko borroka 2020an

2020ko Harrotasuna LTB emakumeen berdintasunaren aldeko borrokara zuzendua dago 2020, LTB Emakumeak: Sororitatea eta Feminismoa esloganaren bidez. Izan ere, LGTBI+ kolektiboaren barruan emakumeak dira gutxien ikusten direnak eta ahaztuta geratzen direnak. **K**

Pultsera bat galdu zen San Joan egunean

HERNANI GALDUTAKOAK

San Joan egunean, eguerdian, pultsera bat galdu zen Txantxillatik Tilosetara bidean. Perla txuriak ditu eta norbaitek aurkitu badu deitu 690 377 205 telefono zenbakira.

Biteri uztailen eta abuztuan goizez irekia

HERNANI BITERI KULTUR ETXEA

Biteri Kultur Etxean Udako ordutegia jarri da martxan hiru gelen irekierarekin batera. 09:00etatik 14:00etara bitartean egongo da zabalik, eta uztaila eta abuztuan itxita egongo da arratsaldeetan, baina irekia goizetan. Erakusketa gelari dagokionez, Nagore Legarreta argazkilariaren Suzko irudiak erakusketa egongo da ikusgai, uztailaren 17ra arte. Liburutegia orain arte mailegurako bakarrik zegoen zabalik, baina orain kontsultarako eta irakurtzeko aukera ere izango da.

Eskelak

Eskelak ilunabarreko 19:30ak arte jasoko dira. Izen abizenak, eskela jartzen duenak eskatu bezala errespetatuko dira eta funeraria bidez jasotzen den kasuetan, jaso bezala.

JAVIER SAGASTAGOITIA MONASTERIO

Herenegun hil zen, 81 urte zituela

- Goian bego -



Nazionalismo demokratikoaren printzipioak defendatu zituen eta langile nekaezina izan zen. Gizon zentzuduna, hurbila eta arrazionala galdu dugu. Maite zaitugu eta gogoratuko zaitugu beti.



Hernanin, 2020ko ekainaren 27an

† JAVIER SAGASTAGOITIA MONASTERIO

Zure oroimena beti izango da gure bihotzetan

ZURE ILOBAK: MIRARI, ARANTXA, FELIPE, ZIKUÑAGA, ENEKO, IRATXE, IÑAKI, LURDES ETA JON



Hernanin, 2020ko ekainaren 27an

† LUZIA AZKUNE URANGA

2020ko martxoaren 27an hil zen 78 urte zituela

- Goian bego -

Haren senarra: Jose Antonio Etkezarreta; alabak: Amaia eta Ainhoa eta Imanol Intxauspe; bilobak: Xuhar eta Markel.

«Gure bihotzean eramango zaitugu»

Haren animaren alde otoitz bat eskatzen dizute eta arren etor zaitezte **BIHAR, IGANDEA**, goizeko **HAMAR T'ERDIETAN, AMA BIRJIN JASOKUNDEAREN** parroki elizan egingo den hiletara. Aldez aurretik mila esker.



Astigarragan, 2020ko ekainaren 27an

Iberpapelek uztailen estreinatuko ditu Hernaniko instalazio berriak

Paper-lantaldeak, ordea, atzeratu egin du Zikuñagan sartzeko asmoa zuen makinan egindako inbertsioa COVID-19aren eraginez.

HERNANI IBERPAPEL

Iberpapel Taldeak uztailaren amaieran jarriko ditu martxan Hernaniko zelulosa-plantaren instalazio berriak, koronabirusaren osasun-krisiaren ondorioz alarma-egoeran izandako atzerapenengatik. Baina aldi baterako atzeratuko ditu gainerako inbertsioak -Makineria berria-, egungo ziurgabetasun egoera dela eta, konpainiak Balore Mer-

katuaren Batzorde Nazionalari (CNMV) jakinarazi dionez.

Paper eta energia-taldeak adierazi zuenez, alarma-egoera amaitu denez, uztailaren amaieran instalazio berrien obrak amaituko direla aurreikusten da, baita lehendik daudenekin lotuko direla ere. Gainera, Zikuñagako lantegi osoa mantentzeko lanak ere egingo dira.

Horrek guztiak hernaniarren instalazioetan geldialdi bat egi-

tea ekarriko du, 50 egunez gutxi gorabehera, eta horrek, «Logikoa denez», eragina izango du emaitza ekonomikoetan, konpainiak adierazi duenez.

Dagoeneko aurrekontuan sartuta dagoen eta *Hernani Proiektua* osatzen duen MG papererako makina berrian egingo dako inbertsioari dagokionez, Iberpapelek azpimarratu zuen «gaur egungo osasun, ekonomia eta enpresa ziurgabetasunaren ondorioz, bai estatu mailan bai nazioarte mailan, Covid-19ren krisiak eraginda», atzeratu egingo dela, eta ez dagoela data zehatzik berriro aktibatzeko. **K**



**FUNERARIA
ORBEGOZO
BEILATOKIA**

**Asegururik ba al duzu?
Deitu Orbegozora**

24 orduko tlfnoa.

943 33 10 20

www.funerariaorbegozo.com

* Zerbitzu partikularrak eta aseguru etxeekin

* Beilatokiak

* Errausketak

* Lekualdatzeak

* Eskelak, koroak...

Zentrala Latsunbe 7, Hernani



HERNANI · ANDOAIN · ASTIGARRAGA · URNIETA · GOIZUETA

Kanpoko jolas igerilekuak asteazkenean irekiko dira eta udako ikastaroetan ere izena eman daiteke oraindik

Aforoa 726 lagunentzako da, 246 uretan, eta bi txanda egongo dira: bat 10:00etatik 14:30etara eta bestea arratsalde 15:30etatik 20:00etara.

HERNANI UDALA

Hernaniko jolas igerilekuak asteazkenean zabalduko dira, baina, pandemiarengatik, segurtasun neurri bereziak hartu beharko dira. Horiek guztiak azaldu zituzten atzo Esti Aldeiturriaga eta Ane Ibarburu zinegotziak, igerilekuan bertan.

Ane Ibarburuk xehetasun batzuk azaldu zituen. «Bi txanda egongo dira, bat goizekoa eta bestea arratsaldekoa. Lehenengo txanda 10:00etatik 14:30etara izango da eta 15:00etarako denak kanpoan behar dute. Bigarren txanda 15:30etatik 20:00etara izango da».

Aforoa murriztu egin da Esti Aldeiturriagak esan zenez. «726 laguneko aforoa egongo da instalazio osoan (berez 1.500ekoa da) eta uretan 242

lagunekoa. Aforo haundiko egunetan uretan 20 minutuko txandak egingo dira eta sorosleak abisua ematerakoan denak uretatik irten beharko dira».

Sarrerak txanda bakoitzeko izango dira eta prezioa 18 urtetik beherakoentzat 2,75 euro, 18 urtetik gorakoentzat 3,85 euro, 3 urtetik beherakoentzat 1,35 eta 6 hilabetez beherakoak ez dute ordaindu beharko. Internet bidez erosi daitezke. Egunekei ordutan erosi daitezke eta taldeak kanpotik badatoz ez dira onartuko.

Abonoak soilik kiroldegiko bazkide direnek egin dezakete.

Segurtasun neurriak hartuko dira Aldeiturriagak esan zenez. «Sartzerakoan eta irteterakoan maskarilla erabili behar da. Sarrera eramatea beharrezkoa da, distantzia eta gel desin-

fektantea egon eta erabili behar dira. Aldagelak itxita egongo dira, ezin da jaboia erabili, taberna itxita egongo da, txirristak itxita egongo dira, saskibaloia, boleibol eta mahai teniseko materiala etxetik eraman behar da eta lurrean markatutako puntuetan jarri behar da».

Uztaillean eta abuztuan aire libreko eta kiroldegiko ikastaroak

Hernaniko Udak kiroldegia ikastaro aukera zabala eskainiko du uztaila eta abuztuan.

Izenematea zabalik dago bihar arte eta <http://kirola.hernani.eus/es/inicio> webgunean edo kiroldegiko bulegoan aurretik hitzordua hartuta egin daiteke (telefonoz deituta hartu behar da hitzordua (943 55 21 85). Zozketa astelehen goizean,



Ane Ibarburu eta Esti Aldeiturriaga.

09:00etan egingo da.

Prentsaurrekoan azaldu dute bi zinegotziek aire libreko hiru ikastaro eta kiroldegiko fitness aretoan lau ikastaro izango direla. Ikastaroak hilabeteak izango dira.

Aire librekoetan Martxan jarri! ikastaroan ariketa fisikoa taldean egitea da funtsa eta 55-65 urte bitartekoei zuzendua dago. Zirkuitoak aire librean,

ikastraoa oinarrizko ezaugarri fisikoak hobetu eta bizitzeko modu osasuntsuak sustatzeko da. 16-65 urte bitartekoentzat dago zuzendua. Hernanin barrera, fisikoki entrenatuak dauden pertsonen taldea eta 18-65 urtekoentzat da. Kiroldegiko fitness aretoan berriz lau ikastaro eskainiko dira: Pilates, zumba, multifitnessa eta hipopresiboak gehi luzaketak. **K**

Papelera Zikuñaga Txapelketak etzi pelota jarduera hasiko du

Bigarren edizio honetan 51 bikotek hartuko dute parte, Hernaniko frontoian, kadete, jubenil eta nagusietan bi maila desberdinetan.

Esku pelota bueltan da Hernanin eta etzi hasiko da kiroldegian Papelera Zikuñaga Torneoaren bigarren edizioa. Eskuz binaka jokatzen den txapelketa hau, C.D. Hernanik antolatzen du Papelera Guipuzcoana Zikuñaga enpresaren babesarekin.

Aurten 51 bikote ariko dira; Kadete 1º eta 2º mailan, Jubenil 1º eta 2an eta Nagusi 1º eta 2an. Maila guztietan zortzina bikote ariko dira, baina Nagusien lehenengo mailan hamaika bikotek hartuko dute parte.

Egunero hiru partidu jokatuko dira Hernaniko frontoian, igandeetan ez ezik, eta uztailaren 25an finalak jokatuko dira. Partiduak 17:30etan hasiko dira.

Hernaniko pelotariak parte hartuko dute, baita Mundarrok eta Umore Onakoak ere. Eta hauekin batera Oiarpe, Añorga, Alde Zaharra, Gazteleku, Zumaia, Ilunpe, Tolosa, Behar Zana, Intza, Lapke, Zestoa, Ataun, Azkoitia, Eple, Gure Txeru, Izurun, Pagazpe, Aloña Mendi, Erreka... 22 talde dira guztira

eta bi taldeetako pelotariak osatutako bikoteak ere badira.

Errendimendu txapelketa, alebin eta infantilek

Pelota eskolako alebin eta infantilek ere jokatuko dute, Hernaniko Errendimendu Txapelketa. Alebinek ezkuz binaka jokatuko dute eta infantilek banaka 4/5 barruan. Makatzaga - M.Alberdi, I.Alberdi - Arretxe, Ziganda - Oses, Gomez - Garaialde, eta Olaskoaga - Macicior dira alebinak. Infantiletan Xuban Iturbe, Oier Azpeitia, Auritz Txintxurreta, Martin Alberdi, Enaitz Artola, Jon Urrutia, Aiur Elizazu, Unax Pascual, Oihan Legarreta eta Markel Urdangarin. **K**

Barrenetxea eta Zubirik irabazi beharra dute

Elkarren aurka jokatuko dute gaur 16:15etan Goikoetxea eta Urriza lagun dituztela.

HERNANI ERREMONTEA

50garren Urteurreneko Txapelketaren bigarren jardunaldia jokatuko da gaur Galarretan, arratsaldeko 15:15etan hasita. Txapelketaren bi partidu eta jaialdiko hirugarren bat daude iragarrita eta bigarrenengo Barrenetxea hernaniarra eta Zubiri goizuetarra elkarren aurka ariko dira.

Atzelari hernaniarrak Goi-

koetxearekin jokatzen du eta atzelari goizuetarrak Urrizarekin.

Bi bikoteek lehenengo jardunaldian erraz galdu zuten eta ez zuten punturik batu, beraz gaur ia derrigor irabazi beharra dute hanka erdiarekin kanpoan geratu nahi ez baldin badute. Gutxienik puntua lortu beharra dute, azken jardunaldia aukeraren batekin iristeko.

Lehenengo partiduan lehenengo jardunaldiko bi irabazleak ariko dira: Juanenea-Endika, Ansa II-Larrañagaren aurka 16:00etan. Irabazleak finala eskura eduki dezake eta finalerdietarako sailkapena zuzenean lortuko du. **K**

ZUZENEAN

ERREMONTE TXAPELKETA
 Hernaniar guztiak beherapena (sarrera:5€)

EKAINA 27 Larunbata 15:30

1
ANSA II LARRAÑAGA VS JUANENEA ENDIKA

2
GOIKOETXEA V BARRENETXEA IV VS URRIZA ZUBIRI

3
URRUTIA II AIZPURI III VS ETXARRI LABAKA

Hernaniko musker bat European eredu, Londreseko British Museum famatuan

Udaberriaren goxotasunera iratzarri da, eta gorputzaren berdetasunean ostarre urdin bat azaldu zaio: gorputz berdea, buru urdina. Zeru zati bat ireki da musker arraren urteroko zikloan. Iritsi da momentua: ugal garaia da.

Landare artean nabarmentzeak, ordea, bere arriskuak ditu. Eta nahiz eta kondaira askok bere alde egin, eta horrela, gizakia beldurtu, badira muskerrari eskua botatzera ausartzen direnak. Honela bukatu zuen Euskal Herriko musker batek British Museumean. Famatu, baina hilik.



IÑAKI SANZ-AZKUE
Argia aldizkarian
argitaratua

URUMEA MUSKER BERDEA

Ez da beti hala izan, baina egun, ia oharkabeen pasatzen den animalia da musker berdea (*Lacerta bilineata*). Ez dugu begi-bistan jada. Baserri eremuak bakantzen joan dira, eta mendian ikusteko, adi egon behar. Hirietan, gutxi izango dira muskerrak ikusteko gune egokiak: zelaiak, laharrak eta bidezidorrak nahasten diren gune aberatsak, edota baso irekiuneak, horma zahar eta egur pilaketa landaretsuak. Baztertu egin dugu muskerra. Gero, denbora arduratu da gure buruetatik desagerrarazteaz.

Hor dago, ordea. Zelaiaren eta laharren berdetasunean ezkutatuta. Berdea kolore deigarria baita, muskerra paisaiaren berdetasunean barneratzen den arte. Begiak prest izan behar ikusteko, edota belarriak bere mugimenduak entzuteko. Udaberriak ekartzen baitu musker berdearen ugal garaia, eta orduan ausartzen baitira koloreak nabarmentzen eta euren segurtasun eremutik ateratzen. Une horretan ikus ditzakegu musker berde arrak buru-lepo aldeko orban urdinarekin emeak erakartzen. Edo borrokan, eremurik egokienak aukeratzen. Guztiak ez baitira eguzkia, elikagaiak, leku segurua eta emeak erakartzeko toki aproposak eskaintzen dituztenak. Eta horrek sortuko

ditu borrokak arren artean, eta sumatuko ditugu, agian, ezku-talekueetatik ateratzen, *urrezko eremua* nork irabaziko. Buru handi eta gorputz sendoko arrak bata besteari horzka eginez, nor baino nor indartsuago.

Emeek gehiago egiten diote kasu euren izen zientifikoari. Eta maiz, bi marra zuri antze-man daitezke gorputzaren bi aldeetara. Bi marra zuri: bi-lineata. Buru txiki eta gorputz lodi samarrekoak arrautzak barruan dituztenean, ondo zaindu beharko dute euren jakia. Ondo jan izanak, arrautzak ondo garatzea ekarriko baitu, eta harri edo enbor azpitan uzteko aukera izango baitute gero, musker txikiak noiz aterako. Hortik aurrera, alabaina, ama ahaztu egingo da arrautzez (aitak aspaldi egin zuen moduan). Muskerrek, beraz, jaiotzen diren momentutik, bakarrik egin beharko diote aurre bizitzari. Uda amaiera izan ohi da bizi berrien hasiera. Udazkeneko eguzki eta hego haize egunak

Ereñotzun hala jaso izan dugu: «belarrira saltatzen omen zutela entzun nuen, eta ordutik beldurrez ibiltzen nintzen», edo «muskerraren horzka sugearena baino txarragoa da».

izango dira musker jaioberrien esperantza. Negua iritsi aurretik, ondo elikatu behar baita gorputza.

Duela hamarkada gutxi arte fama, muskerrak
Muskerra ezaguna izan da, eta



Egun, ia oharkabeen pasatzen dn animalia da musker berdea (*Lacerta bilineata*).

izan du bere fama ere, duela hamarkada gutxi arte. Baserri eremuetako eta herri txikietako biztanlea baita muskerra, eta hiriak handitzen eta asfaltatzen hasi garen artean, bista-bistan izan baitu gizakiak. Eta gorde ditu belaunaldiz belaunaldi transmititu diren ezagutzak eta usteak. Kondairak eta kontakizunak, Bernardo Atxagak *Obabakoaren* erakutsi zigun bezala. Belazeen lotan geratuz gero, muskerra belarritik sartu, eta burmuina jateko kapaza dela kontatu ziguten. Ez baitago gizakiaren burmuina baino gauza gozoagorik muskerrarentzat. Eta hala, tontotuta uzten zaitu betiko. Hori zioten, behintzat, Obaba herriko biztanleek ipuinean. Eta hala, musker berdeari ospea eman zioten berriz, liburuaren azalera, pantaila handira, eta Asteasuko Muskerraren Eguna eraman arte.

Fama, alabaina, irabazia zuen aurretik muskerrak, eta belarrira saltatzen zuela ere zabaldua zegoen aspalditik. Ereñotzun hala jaso izan dugu: «Belarrira saltatzen omen zutela entzun nuen, eta ordutik beldurrez ibiltzen nintzen», edota «muskerraren horzka sugearena baino txarragoa da».

Muskerraren ospeak, beraz, gehiago izan du txarretik onetik baino. Arrazoirik gabeko fama

txarra, egia esan. Eta hala, oso zabaldua dagoen uste bat ere jaso izan dugu Malerreka, Goizueta eta Hernani inguruan: «Esaten zuten kopetan pegatzen omen zela muskerra saltatuta,

1913 urtean, ez dakigu zergatik, Edouard Britten izeneko gazte britainiar bat Hernani inguruan ibili zen. Musker bat harrapatu zuen, eta Londreseko British Museum famatura bidali zuen.

eta zazpi herrietako kanpaiek jo behar zutela hura libratzeko!». Eta horregatik, edota benetan arriskutsu fama duenak gizakia beti erakarri izan duelako, muskerra begiratua eta zelatua izan da leku askotan. Baita harrapatua ere.

Hernaniko muskerra, Londreseko British Museum famatuan

1913 urtean, ez dakigu zergatik, Edouard Britten izeneko gazte britainiar bat Hernani inguruan ibili zen. Musker bat harrapatu zuen, eta Londreseko British

Museum of Natural History museo famatura bidali zuen. Nori eta Europako herpetologiaren aitari: George Albert Boulenger handiari.

Boulengerrek, hainbat espezie deskubritu, deskribatu eta klasifikatu zituen biologo hark, British Museumen egiten zuen lan, eta orduantxe ari zen lanean, historian egin den muskerrei buruzko lehen lan monografiko bikainarekin: 1921ean bi liburukitan argitaratu zuen *Monograph of the Lacertidae* famatua.

Jakina da garai hartan zientzialariek *informanteak* izaten zituztela. Alegia, herrialde ezberdinetako laginak ematen zizkieten laguntzaileak. Ez dakigu Edouard Brittenek paper hori betetzen zuen, baina hala izan edo ez izan, britainiarrak Hernanin jasotako muskerrak garrantzia berezia izan zuen Europako musker berdeak deskribatzeko garaian. Izan ere, Boulengerren lanean, Hernani izena behin baino gehiagotan azaltzen da, eta zientzialariak datuak ematen ditu, Hernaniko muskerraren luzera, sexua eta ezkatei buruzko informazio zehatza emanez. Horretarako, Boulengerrek ezkatat aztertutako Hernanin harrapatutako muskerra. Non eta British Museumean.

Britten gazteak Hernanin harturiko musker arra, Europa-ko *Lacerta viridis* (egun *Lacerta bilineata*) muskerraren *forma typica* barietatearen lehen lagina izan zen. Alegia, Boulengerrek Europan deskribatua zuen, musker berdea Iberiar Penintsulan ere bazela baieztatzen zuen lehen froga. Hala, Europa-ko beste hainbat muskerrekin batera, Boulengerrek hainbat aldiz aipatzen du muskerra bere lanean.

Paradoxikoa dirudi, egun oraindik ere muskerrei buruzko kondairak bizirik dirauen herrian, bertako musker bat izana espeziea zientzia arloan barneratu zuena. Nola begiratzen ote zuten 1913ko Hernaniko biztanleek Britten gaztea, muskerra harrapatzen zuen bitartean?

Musker berdeak, begirada zorrotza

Uda hasierako egun hauek, udaberrikoek bezala, aukera bikai-

Paradoxikoa dirudi, egun oraindik ere muskerrei buruzko kondairak bizirik dirauen herrian, bertako musker bat izana espeziea zientzia arloan barneratu zuena.

na emango digute begia zorrotzu eta musker berde helduak ikusteko. Udazkenak, gazteak eta jaio berriak behatzeko. Isurialde atlantikoan oso zabaldua dagoen arren, Euskal Herri mediterraneoan behera goazela, muskerrak erreka ertzeko eremu hezeak bilatuko ditu, eremu lehorragoak gardatxoari uzteko. Izan ere, musker berdeak beste bi muskerrekin banatu behar baitu eremua Euskal Herrian:

Aurrerantzean, kondaira horiek buruan gorde eta muskerra begirunez begiratzea besterik ez dugu. Brittenen jakin-min berarekin, mendian goazenean, begiak zorrotzu ditzagun.

Gardatxoarekin (*Timon lepidus*) eta Schreiber muskerrarekin (*Lacerta schreiberi*).

Ezin esan espezie arraroa denik musker berdea, eta ez dago babestua Euskal Herriko zerrendetan. Europa mailan, baina, Natura2000 sareko Habitat Arteztaraua da babesten duena eta IV. eranskinean sartua du. Musker berdea animalia babestua da, beraz.

Aurrerantzean, kondaira ho-



Begirada zorrotzeko narrastia da musker berdea.

riek buruan gorde eta muskerra begirunez begiratzea baino ez dugu. Britten gazteak izan zuen jakin-min berarekin, mendian barrena goazenean, begiak zorrotzu ditzagun. Horrela, gure

begiradak muskerrarenarekin egingo du topo. Ordurako, ordea, hark zeharka begiratuko gaitu. Guk muskerra baino, muskerra bera izango delako gu behatuko gaituena. K

«Boulengerrek ezkatak eta gorputzeko neurriak aztertuz sailkatu zituen muskerrak, eta Hernanikoak bazuen berezitasunik»

Barailaren azpian, ohiko hiru ezkata pareak beharrean, Hernanikoak lau zituela nabarmentzen du George Albert Boulengerrek, eta aldiz, 'tympanic' eta 'masseteric' ezkatarik ez duela, gehienek dauzkaten bezala.

MUSKERRA BEREZITASUNAK

Monograph of the Licertidae lanaren bi liburukietan jasotzen ditu George Albert Boulengerrek Hernaniri eta bertan hartutako muskerrari buruzko aipamenak. Eskuineko irudian, esaterako, ikusi daiteke British Museumeko muskerren zerrenda, Boulengerrek erabili zituen horiena; eta bertan ageri da Hernaniko arraren aipamena, Edouard Brittenek bildutakoa.

Bi liburukietan zehar, han eta hemen aipatzen da Hernaniko muskerra. Eta bereziki,

haren ezaugarriak aditzera ematen dituenean. Atal horretan, Hernanikoaren datuekin batera, biltzen ditu beste hainbat tokitako muskerrenak ere: Valdeblora, Voslan, Turin, Comana, Modica, Langoiran, Korito, Bozen, Biganos eta Khotz. Guztien kasuan, datu eta neurriak ematen ditu monografikoak; eta hauexek dira Hernaniko muskerrarenak: muturretik kloakaraino, 113 milimetro; buruaren luzera 28 mm, zabalera 18 mm, eta altuera 16 mm; aurreko hanken luzera 38 mm, eta atzekoena 59

mm; oinaren luzera, 30 mm; eta isatsarena, 228 mm.

Garai hartan, azterketa genetikorik ez zegoenez, morfologia erabiltzen zen espezieak identifikatu eta sailkatzeko. Horrela, batetik, neurriak hartzen zituzten erreferentzia; eta bestetik, ezkatak.

Ezkatei buruz ari dela, hain justu, bi kasutan egiten dio Boulengerrek erreferentzia Hernaniko muskerrari, oso nabarmen. Batetik, nabarmentzeko ezaugarri gisa aipatzen du, Hernaniko muskerrak lau ezkata pare dituela barailaren azpian, normalean hiru izaten dituztenean. Eta bestetik, azaltzen du muskerrek, normalean, izaten dituztela *masseteric* eta *tympanic* izeneko ezkatak, eta kasu gutxi batzuetan, 100etik zazpitan, ez dauzkatela: horietako bat da Hernanikoa.

Horrek ez du esan nahi, noski, Hernaniko musker hori zehazki berezia zenik; baizik eta bertako muskerrek ezaugarri horiek zituztela. Bertako muskerraren eredu hartzen du berak, British Museumen dagoena; eta are gehiago, penintsula osoko *Lacerta bilineata* ren eredu. Izan ere, Boulengerrentzat Schreiber muskerra zen penintsulako muskerra, eta Gardatxoa ere bai; baina ez zekien musker arrunta ote zegoen. Hernanikoa izan zen, horren aurreneko frogia.



Oso nabarmen ikusten zaizkio ezkatak musker berdeari, azpitik begiratzuz gero.

List of the Specimens in the British Museum.				395
88-92.	♂, ♀.	Bouron, Fontainebleau.	M. E. Taton.	(Lataste Coll.).
93-95.	♂, ♀ and yg.	Odilienberg, near Strasbourg, 2680 f.	G. A. Boulenger,	Esq.
96-97.	♂, ♀.	Montpellier.	Prof. Duboscq.	
98-99.	Yg.	Near Narbonne.	M. E. Simon	(Lataste Coll.).
100-100.	♂ and yg.	Marseilles.	Prof. Vayssière.	
110-111.	♂.	Rion Isle, near Marseilles.	M. M. Mourgue.	
112-115.	♂, ♀.	Villefranche-sur-Mer.	Dr. P. Lehrs.	
116-124.	♂, ♀.	Valdeblora, Alpes-Maritimes, 2000 m.	M. P. Chabanaud.	
125-134.	♂, ♀.	Near Dinant, Belgium.	G. A. Boulenger,	Esq.
135.	♂.	Maredsous, near Dinant.	Rev. B. Lebbe.	
136-145.	♂, ♀ and yg.	Denée, "	M. A. Van Delft.	
146.	♀.	Lower Ahr, Rhineland.	W. F. Kirby, Esq.	
147-148.	♂, ♀.	Heidelberg.	Dr. J. de Bedriaga	(Lataste Coll.).
149-152.	♂, ♀.	Binningen, near Basle.	Dr. J. Kox.	
153-154.	♂.	Close to Bies Glacier, near Randa, Valais, 6500 f.	C. R. Boulenger,	Esq.
155-157.	♂, ♀.	Baden, near Vienna.	Dr. F. Werner.	
158, 159-161.	♂, ♀.	Vöslau, "	"	
162.	♂.	Meisenbach, near Vienna.	"	
163-164.	♂.	St. Peter, near Grafensbrunn, Carniola.	Hr. F. Henkel.	
165-166.	♂ and yg.	Barcelona.	O. Thomas and R. I. Pocock, Esqrs.	
167-172.	♂, ♀.	"	M. G. de Southoff.	
173-182.	♂, ♀.	Hernani, Guipuzcoa.	E. Britten, Esq.	
183.	♂, type of var.	<i>rasquineti</i> .		
		La Deva, Arnao.	Dr. J. de Bedriaga	
184.	♂.	R. Burbia at Ariadapetra, Leon.	E. Britten, Esq.	
185-196.	♂, ♀.	Corunna.	M. V. L. Seane.	
197-216.	♂, ♀ and yg.	Silos, Burgos.	Rev. S. Gonzales.	
230-243.	♂, ♀ and yg.	Castrillo de la Reina, Burgos.	"	
244-248.	♂, ♀.	Saragossa.	M. G. de Southoff.	
249-268.	♂, ♀ and yg.	Lozoya Valley, near Madrid, 1000-1500 m.	M. de la Escalera	
269-272.	♂, ♀.	Bozen, S. Tyrol.	Hr. A. Mulser.	
273-277.	♂, ♀ and yg.	Domodossola, Piedmont.	Turin Museum.	
278.	♂.	Lanzo Valley, "	"	
279-289.	♂, ♀.	Turin.	"	
290-294.	♂, ♀.	Genoa.	Dr. R. Gestro.	

Hernaniko muskerraren aipamena (behetik 19garren lerroan), monografikoan.



Kaxkoan barrena ibili zen Goizetik Txistulari Banda, ekainaren 23an, konpainia eta guzti.



Portu auzora gerturatu ziren txistulariak, San Joanetako ohiko doinuekin.



San Joan bezperan, eguerdian, txupinazo sinbolikoak egin zituzten auzoetan.



Txupinazoaren ondoren, albokariak aritu ziren San Joan bezpera alaitzen, Zikuñaga auzoan.

Festarik gabe ere «San Joan beti gogoan», hiru egunez musikari protagonismoa emanda

Herriko musikariek eta bertsolariak girotu dituzte San Joan jaiei dagozkien egunak, asteartetik ostegunera. Berezko festarik izan ez den arren, herritarrek ez dute ahaztu, egun bereziak direla, ekaineko azkeneko hauek.

HERNANI SAN JOANAK

Ezohiko egunak izan dira aurturten, arraroak, San Joanei dagozkienak. Ez da izan berezko festarik, baina ez dira falta zenbait kultur ekitaldi, gogoratzeko egun bereziak direla, ekainaren bukaerako hauek.

San Joan bezperan egunean, eguerdian, egin ziren bidea horiei, Xabier Lertxundi alkateak. Udalaren webgunean zuzeneko emanaldia eskainita, eta saxofoi eta piano doinuez San Joan martxa aireratu ondoren, hitza

hartu zuen alkateak. Nabarmendu zuen, «egun bereziak» izanda ere, «bereziki garrantzitsua» zela herritarrek pandemia osoan erakutsitako «jarra arduratsuekin jarraitzea». Eta azaldu zuen, «ekitaldi sorta xume bat» antolatu nahi izan dutela, «ilusioa eta poza berreskuratzeko». Betiko San Joan jaiez gozatzeko, izango da aukera, datozen urteotan: «espero dugu, datorren urtean berriro balkoitik egitea jaien hasiera, eta kalean eta Plazan jende asko egotea ospatzeko», adierazi

zuen. Eta bitartean, gonbitea luzatu zien herritarrei, egun berezietz gozatzeko, «baina arduraz».

Txupinazoak eta musika, herriko auzoetan

Mezu horri kasu haundirik egin ez dionik izan da, eta arduragabekiaz jokatu duenik. Baina gainerakoan, musikaren erritmo alaiarekin gozatu dute herritarrek, auzoz auzo zein kiroldegiko emanaldietan.

Alkatearen agurrarekin ez ezik, txupinazoarekin ere eman zieten hasiera, kultur ekitaldiei. Baina udaletxeko balkoitik beharrez, auzoz auzo bota zuten. Eta hortik aurrera, musika izan zen protagonista, herriko txoko guztietan. Alboka doinuek eraman zituzten Zikuñagara, trikitilari eta pandero-joleak aritu ziren Karabelen, txistulariak

Kaxkoan zein Portun, dultzaineroak Orkolagan...

Eguerdian izan bazen hori, iluntzean eskaini zuen San Joan zortzikoa Goizetik Txistulari Bandak, Portun eta Karabelen; eta Hernaniko Musika Bandak makina bat auzotan, Plazan hasi eta Lizeagan bukatuta. Eta horren aurretik, haurrentzako Epa Txiki emanaldia eskaini zuen Demode Quartetek, kiroldegian.

San Joan egunak ere ez zuen musikarik falta, goizean goizetik. Txistularien eta Musika Bandaren dianarakin esnatu zen herria, eta balkoietara atera ziren bizilagunak, haien doinuek entzunda.

Eta eguerdian, berriro atera zen kalera Hernaniko Musika Banda, urtero udaletxeko arkupeetan eskaintzen duen emanaldia, auzoz auzo eta plazaz

plaza eskaintzera. Horrela, Sorgintxulon, Latsunben, Urbieta kalean eta Biterin izan ziren, 20 minutu inguruko kontzertu laburrak eskaintzen.

Baina musikak bakarrik ez, bertsoek ere alaitu zuten San Joan eguna. Atsegindegina, tar-teak utziz kabituz zitezkeen herritar guztien aurrean, bertso saioa eskaini zuten Maialen Lujanbiok, Agin Laburuk, Beñat Gaztelumendik eta Nerea Elustondok, Eli Pagolak jarritako gaiei erantzunda.

Eta iluntze-gauetan, kiroldegiko pista izan da eszenatokia. Asteazkenean igo ziren taula gainera Xabi eta Kistiñe Solano, batetik; eta Kilimak taldea, bestetik. Eta ostegunean, Bitartean folk taldeak eman zion bukaera, aurtengo San Joan arraroetako egitarau bereziari. **K**



Kistiñe eta Xabi Solano anai-arrebak, asteazken gaueko kontzertuan, kiroldegian.



Auzoz auzo ibili zen Musika Banda, emanaldi laburrak eskaintzen.



Bitartean taldeak itxi zuen hiru eguneko egitarau kulturala, kiroldegian eskainitako kontzertuarekin.



Urtero bezala, omenaldia eta lore-eskaintza egin zioten Felipe Sagarna 'Zapa'ri.



Balkoietara atera zen jendea, San Joan eguneko dianarekin batera.



Gustura jarraitu zuten asteazkeneko bertso saioa, Atsegindegian, bertaratu zirenek.

«Herritarren erantzuna ezin hobe da azken hilabetean»

Bailarako dendari batzuek nabaritu dute aldaketa: «gazteak kontzientziatuago daude bertako komertzio txikietan erosi eta kontsumitzeko».

URUMEA KOMERTZIOAK

Ekaina amaitzen ari den honetan normaltasun berrira ohitzen ari gara denak, eta baita Hernaniko komertzioak ere. Horren adibide dira Urrats oinetako denda, Talleres Juantxo eta Telemar. Hiruek ere, azpimarratu nahi izan dute hernaniarrak izan duten erantzun ona, behin konfinamendua amaitu eta gero.

«Herritarrek kontzientziatuago daude bertako dendetan erosi behar dela», dio Urratseko Itsasok. «Hernaniarrak, eta batez ere jende gaztea, konturatu dira bertako komertzio txikia indartzea ezinbestekoa dela». Udalaren laguntza ere gorai-patzen dute Urratseko Pello eta

Itsasok. «Ideia ona eduki dute, eta bultzada eman digute».

Telemarreko Mari Marrek dioen bezala, jende asko ERTEn dago, eta «ez daki kobratuko duen edo ez. Egoera zaila bizi dugu oraintxe. Ezpata eta pare-taren artean geratu dira asko eta asko».

«Donostiara joan beharrik gabe, herrian erosi daiteke»

Bonoek oso ongi funtzionatu dutela aipatzen dute. «Laguntza da, eta horrek jendea herrian erostera bultzatu du, Donostiara joan beharrik gabe. Gazteekin nabaritu dugu hori guk ere. Decathlonera eta horrelako lekue-tara joaten ziren, eta orain ona etortzen dira».

Hernaniko dendariak lan-

postuak mantendu behar dituztela diote. «Horrek izan behar du helburu. Guri antenen instalakuntzak ere asko lagundu digu. Itzalaldi analogikoaren urtea izan da, eta ekainean Ereñotzu aldean ETBko kanalak ajustatu behar dira», dio Mari Marrek.

Erakunde publikoen laguntza, eskertzekoa izango dela diote. «Ea jendea laguntza iristen zaion».

Eta COVID-19ak sortutako krisia, laster amaitzea espero dute denek. «Orain beste itxialdi bat etorriko balitz, ikaragarria izango litzateke».

Horrexegatik, ardura beharrezkoa da. «Denon ardura, berdin da zein den aurrean dagoena. Maskarilla erabili behar da, eta gure dendan sartzeko derrigorrezkoa da jantzita edukitzea», aipatzen du Mari Marrek. Urratsen ere, «zazpi bezero egon daitezke barruan, gehiago ez», aipatzen du Pellok. **K**



Urrats oinetako dendako Pello eta Itsaso.

«Umeen zapatilak eta etxeko txapinak ikaragarri saldu ditugu; maiatza eta ekaina dira denboraldi 'altua', eta onak izan dira»

Urratseko Itsaso eta Pellok neurri guztiak hartu dituzte, krisia ahalik eta azkarren gainditzeko. «Maiatza eta ekaina onak izan dira, baina brote batengatik konfinamendura bueltatu behar badugu, neguko kanpaina galera haundiak izango dira».

URUMEA URRATS OINETAKOAK

Ekaina amaitzen ari den honetan, normaltasun berri- ra ohitzen ari dira Hernaniko komertzioak. Horren adibide da Urrats oinetako denda. Konfinamenduan bi hilabete egon eta gero, maiatzaren 4an, zero fasean, ireki zuten denda.

Ordutik gauzak nahiko ongi joan dira. Itsaso eta Pello oiartzuarrak dira, baina urte asko daramazkiete Hernanin, Urratsen lanean. Pellok konfinamenduan ere lanean jarraitu zuen, nahiz eta atea itxita izan. «Oiartzundik ateratzeko baimena behar nuen; azkenean lortu, eta dendan sartuta egoten nintzen lanak aurreratzen. Konfinamendua etorri zenean, martxoaren 14an, udaberriko materiala eskatuta zegoen, eta kaxak antolatzen ibili nintzen, pertsianak jaitzita».

Herria jenderik gabe eta dena itxita ikusteak, «pena» ematen zuen. «Fruta dendak, arrandegiak... Gauza gutxi

gehiago zegoen irekita. Hasiera batean, hamabost egun edo hilabete gauza izango zela pentsatzen nuen».

Hori bai, behin irekita, «erantzuna ezin hobe» izan da, Itsaso eta Pelloren esanetan. «Lehendabiziko egunetan hitzordua eskatu behar zen, eta espero ez genuen erantzuna eman du jendeak. Beldur gehiago izango zela pentsatzen genuen, baina beharrezko mugimendu asko izan dugu».

Ordutegi zehatzak jarri ziren hasierako asteetan, eta kirola egiteko zapatilen salmenta asko igo zen. «Baita etxeko oinetakoena ere. Inoiz ez dira erabili horrenbeste, etxean pasa ditugun orduak hausturak eragin dituzte, eta aldatu beharra ere bai. Komuneko paperaren efektua oinetakoetan gertatu da, etxeko zapatilekin», dio irriparez Pellok.

«Konfinamenduan, haurren oinetakoak txiki geratu dira»

Sortu den beste efektu bat,

haurren oinetakoen salmenta igoera esanguratsua izan da. «Konfinamendua hasi zenetik amaitu den arte, bi hilabete edo gehiago pasa dira, eta zapatilak txiki geratu zaizkie. Askok hazi dira ume hernaniarrak bi hilabete hauetan».

Itsasok faltan bota zuen alarma egoeran beharrezko oinetakoak saltzen uztea. «Diseinuko oinetakoak ez, baina zapatilak edo etxeko txapinak saltzen utzi behar zuten. Merkatal zentru haundietan eremu batzuk itxita zeuden eta hori ere egin zitekeen oinetakoen dendetan».

Hala ere, maiatza eta ekainean jendearen erantzuna ona izan da, eta krisia ez dute horrenbeste nabaritu Urratsen. «25 edo 30 urte korrika egin gabe egon dena ere, zapatilak erostera etorri da».

Konfinamendu honetan indarberrituta atera direnak, internet bidezko salmentak izan dira. «Ez dute mugarik izan, eta saltzen jarraitu dute.

Egia esan, lehia desleiala sortu da, eta horrek mugatua behar zuen, Gobernuaren aldetik».

«Udalak bonoekin asmatu du, eta laguntza haundia eskaini du»

«Eskerrak bonoak oso esperimentzia ona izan diren. Berriak elkartearen sartuta gaude, eta aurretik 300 txartela atera izan dira beste kanpainetan, baina oraingoan 10.000 bono jarri dira salgai. Hori zenbaki potoloa da, eta mesede haundia egin digu denda gehienei».

150.000 euroko injekzioa sartu da, Udalaren aldetik. «Ez hori bakarrik, 50 euroko erosketa baino gehiago egin daiteke, adibidez 85 eurokoa. Gainera, herriko dendari asko sartu dira kanpaina barruan. Udalak asmatu du, eta jende askorengana iritsi da».

Oinetakoen negozioan, martxoa eta apirila ez dira izaten hilabete indartsuak, eta alde horretatik gaitzerdi. «Gurean maiatza eta ekaina dira indar-

tsuagoak, eta hor ongi joan da gauza. Nabaritu dugu krisia, baina ez horrenbeste. Gero udan merkealdiak datoz, eta hor errentabilitate gutxiago izaten du saltzaileak».

Itsaso eta Pello oraingoan gustura daude, baina beti ere broteen beldur. «Zer gertatuko den ez dakigu; berriz ixten bada, adibidez irailean, guk neguko kanpainaren erosketak eginda dauzkagu. Hori aurretik egin behar da, eta galerak haundiak izango ditugu, etxera bueltatu behar badugu. Guk neurri guztiak hartzen ditugu dendan: maskarilla derrigor, desinfektantea, distantzia mantendu, eta gauetan ozono makina jartzen dugu martxan aireatzeko, goizean etortzen garenerako».

Urratsen, ilarak ohikoak dira. «Hori jendea dagoenaren seinale da. Hala ere, oinetako dendak bereziak dira, barruan jendea denbora askoan egon baitaiteke. Eskerrak eman behar dizkiegu, pazientziarekin zain geratzen direnei».

«Herriko tailer tekniko bakarra gara»

Telemarreko Mari Mar Aldaren hitzetan, «zerbitzu teknikoak salbatzen digu. Amazonek min asko egin digu, baina hasieran ongi aritu gara».

URUMEA TELEMAR

Telemar etxetresnak Hernanin urte gehien daramazkiten komertzioetako bat da, eta Mari Mar Aldak ongi ezagutzen du herriko martxa. COVID-19ak eragindakoa ere bai. «Lehendabiziko egunetan oso ongi aritu ginen lanean. Jendeak gauzen beharra zuen».

Hala ere, Mari Marrek argi dauka, zein den komertzio txikiaren arerio nagusia. «Amazon madarikatua. Min asko egiten digu. Ez dute BEZik ordaintzen, eta edozer erosten da gaur egun internet bidez».

Gutxienez, erosle euskal-

duna fidela dela dio. «Betiko bezeroa fidela da. Ezin gara kexatu, eta arraroa da Amazon bidez erostea».

Telemar instalatzailea ere bada, eta hori ere aldeko dute. «Bezeroak badaki, guk aparaturen bat jartzen badugu, ibiliko dela: telebista, garbigailua, mikroondasa, izozkailua...».

Abantaila da, baita ere, Hernanin dagoen tailer tekniko bakarra izatea. «50 urte daramazkigu, eta horrek salbatzen gaitu, zerbitzu teknikoak. Hori da guk dugun abantaila bakarra. Poztasunik ez dago, hori argi dago».

Maiatzaren 11n zabaldu zi-

tuen ateak Telemarrek, berriz ere, baina ez jardunaldi osoan. «Jornada erdira hasi ginen lanean, eta horrela jarraitzen dugu. Arratsaldeetan itxita dauzkagu ateak, ez da inor etortzen. Goizez egiten dira orain erosketa guztiak».

Hori bai, segurtasunari garrantzia handia ematen diote. «Jendearen aurrean ez daukagu telebistarik, garbigailurik, izozkailurik... Prezintatuta daude biltegian. Horrela banatzen ditugu». Bezeroaren tzat «kutsatzeko» arriskutsua izan daitekeela dio. «Plan renovearekin aurrera jarraitzea espero dugu. Lagunduko du».



Mari Mar eta Karmele, Telemarreko mostradorean babestuta.

«Oporretara joan aurretik, jende asko etortzen da errebisioa egitera»


Talleres Juantxon lanez gainezka dabiltza, azken bi hilabeteetan. Konfinamendua eta gero «bateria arazoak eta elektronikoak egon dira».

URUMEA TALLERES JUANTXO

Kotxe tailerrentzat, normaltasun berrira itzulera lan karga haundiko garaia izan da. Jendea oporretara joateko gogoarekin nabaritu du Juan Ignacio Rodriguezek, eta horrek tailerretara kotxeak eramatea esan nahi du. «Lan karga asko haunditu da, izugarria izan da». Baina ez da azken asteetako kontua izan, aurretik ere lanez lepo zeuden Talleres Juantxon. «ITVa pasatzeko errebisio asko egin ditugu, eta kotxeak arrankatu ere egin behar izan dira».

Konfinamenduan kotxeen joan etorria asko murriztu zen, eta kotxeak garajeetan eta kaleetan denbora asko geldirik egon ziren. «Bueltatzerakoan, kotxea martxan jarri ezinda aurkitu da jendea. Batetik bestera, Hernanin barrena eta Astigarragara ere bai, mugitu behar izan dugu kotxeak arrankatzera. Arazo gehienak elektrikoak izan dira».

Orain, berriz, lan gehien kotxeen prestaketan dute Juantxon. «Ez nuen uste, baina jendeak oporrak dauzka buruan, eta mugitzeko gogo. Furgonetak prestatu ditugu, eta karabanak ez, tailerrean kabitzen ez direlako...».



Juan Ignacio Rodríguez lan eta lan ari da.

ITVetan bertan eta telefonoz ordua hartzeko, pilaketak izan dira ireki zirenetik. Bere garaian pasa behar zuten kotxeak ez ziren joan, eta Juantxon nabaritu zuten, nola presatu behar ziren auto guztiak batera. «Baimena kadukatua izanez gero, berehala ematen dute hitzordua; eta horiek segituan etorri behar izan dute».

Zentraliten eta beterien arazoak izan dituzte, baina denetik ikusi dute Juantxon. «Batez ere, arazo elektronikoak izan dira, baina gurrupilak, engrageak, motorrak eta aldagaiak ere matxuratu dira. Hala ere, hori ez zaie gertatu geldi

egoteagatik; bai ordea arazo elektronikoak».

Tailerretan lana ez da falta, alderantziz. Hori bai, geldirik egon ziren aste horiek erreku-peratzea zaila da. «Lan gehiago izaten dugu krisi garaietan, kotxe gutxiago erosten baitira. Hamabost egunez itxi genuen tailerra, eta gero goizetan ireki genuen. Piezekin arazorik ez dugu izan, hornitzaileak bertakoak direlako».

Bere gomendioa argia da: «kotxea errebisatu behar da oporretara joan aurretik. Gurrupilak, olioak, motorra, elektronika... Dena bere onean dagoela ziurtatu behar da».

ITUROLATARROK



Ikustezinak
Idoia Telleria Maritxalar

Zaintza lanak ezinbestekoak ditugu

Pertsonen arreta eta zaintza sektoreko langileon lan baldintzak hobetzeko antolatutako garen emakume talde bat gara.

URUMEA BABESTUTAKO EDUKIA

Horretarako **gizarte-ekimeneko kooperatiba integrala** sortu dugu, hau da, langileak (zaintzaileak), erabiltzaileak (zainduak) eta kolaboratzaileak (pertsona, eragile eta erakunde erantzuleak) biltzen dituen egitura enpresarial bat, Maitelan Kooperatiba Integrala.

Pertsonak jaiotzen garen momentutik hiltzen gareneraino elkar-mendekoak gara,

eta ondorioz, gure bizitza osoan zehar zaintza lanak ezinbestekoak ditugu. Zaintza lan hauek baina ez dira modu parekidean banatzen jendarrean, emakumeok orokorrean, eta zehazki, emakume migratu eta arrazializatuak baikara zaintza lan hauek egitearen arduradunak, gehienetan gainera, oso modu prekarizatu eta zaurgarrian.

Gure helburu bat zaintzen gainera ardura kolektibizatzea da, eta horretarako, **bazkide kolaboratzaile** figura sortu dugu, zeinak, lekua emango dion zaintza sektorea duintzeko eta kolektibizatzekeo prozesuan parte hartu nahi duten pertsona, enpresa eta eragileei, hau da, bai zuri zein zure eragileari. Egin bazkide!


Maitelan.eus

Hernaniko Elkarlan Sorgunea
Iturrola.eus
Florida Auzoa, 28 - 20120 Hernani

mitxelena
LARGE-SCALE CUSTOM MACHINING

TALLERES MITXELENAN
BABESTUTAKO ATALA
Eziago Poligonoa, 21
Zikuñaga Auzoa, Hernani
www.talleresmitxelena.eus

Labirintoa



Sudokua

P	T				V		
				V		X	
	U		S	P		Q	R
	T		W			P	
				X	Q	R	W
Q			P				S
	P	Q		W			
		R					W
V		U			R	X	T
P Q R S T U V W X							

Sudokua

8		1	11	4		13	16	14	2	12	7	6			10
	7	6		9		12	11		8	13	3	16	15	14	2
5	2				7		15		9	16		13	4		
	16	13	14	1			8	5				12	11	3	7
	3	10		8			9	13	12	14		7	6	16	11
				7	13		7	10	15			2	8	4	3
		8	8	14	12		2		3	7	4			9	
7	7			16		6			5	2	8	14	1	15	
		16			15		6	7		3	2		12		14
15				2		4		16	8	15		3		6	
		3			16	8		4	6	10	9	11	5		15
4	12		6		9	10	14		11	5	13	1	7		16
6		4				16	12	8	13	1	15	3	10		9
14	11	15		8	4	9	10	3	7	6					13
3	10		12	7		15	13		14	4	5		16	6	1
	13			6		3	5				12			11	4

Ariketa matematikoa

	-		+		= 3
x		-		-	
	/		x		= 2
/		x		+	
	+		-	8	= 6
=		=		=	
2		5		7	

EGURALDIA

GAUR

Oso aahulduta iritsiko den fronte batek eragingo digu eta kantauri isurialdera lainoak ekarriko ditu. Dena den, ostarteak ere zabalduko dira tarteka, eta tenperatura apur bat igoko da. **Min.17° / Max.24°**

BIHAR

Antzera jarraituko du baina iparraldean litekeena da behe-laino gehiago agertzea. Tenperaturan ez da aldaketa haundirik espero. Haizea ipar-ekialdetik finkatuko da. **Min.17° / Max.22°**

(euskalmet)

TELEFONO ZENBAKIAK

TAXIAK 943 550093 (Hernani) 622 222 343 (Astigarraga) 948 514037 - 948 514019 (Goizueta)

UDALZAIINGOA 943 248900 (Hernani) 943 335230 - 699 487 587 (Astigarraga)

DYA 943 464622

AUTOBUSAK Garayar: 943 556658

Areizaga: 943 452708

Korreoa Goizueta-Hernani: 948 514037

JOKALARI / ALKOHOLIKO ANONIMOAK: 943 331103

ANBULATORIOA 943 006666 - 900 203050 (Hernani)

943 335644 (Astigarraga) 948 510800 (Goizueta)

FARMAZIAK

Gegunez: Odriozola Idiazabal, 18 (Urmietza) 943 334014

Gauez: Urrutia Etxeberri, 1 (Hernani) 943 557738

Goizueta: Nagusia 64 948 514353

IRAGARKI MERKEAK

Astigarragako sagardotegi batean lan egiteko zerbitzari bat behar da. Urte osoko lana.

Idatzi: landepartamendua@gmail.com

18 urteko neska gaztea lan bila, edozer lanetarako prest. Deitu: 653 733 620

Iñigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, osteopatia, kinesologia, reiki, homeopatia, akupuntura,... Deitu: 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)

'I may destroy you', eguneroko arazo asko mahai gainera ekartzen dituen fikzioa



AITOR CARACCILO

URUMEA TELESAIL ETAN ADI(K)TUA

Michaela Coenen azkeneko sorkuntza nabarmenduko dugu hilabete honetan, berak jasandako eraso sexual batean oinarritzen dena.

Azkar asko pasa zaigu ekaina. *Normaltasun berri* egoerara iritsi garen honetan, gure San Joan maiteak aho txikiz ospatu ditugu, eta modu batera azterketa txiki bat egin diogu gure buruari eta gure portaerei. Gure kontzientzia maila hobetzen saiatzen ari gara, ikusi ondoren ikastea dela aurrera joateko modu bakarra, pekatari txikiak garen arren. Modu berean, gaur ekarri nahi izan dudana telesaila, horrelako autokritikara eta lantzeran eraman gaitzakeen telesaila dugu. Arloa guztiz diferentea bada ere, gure inguruan gertatzen diren hainbat arazo eta kezkar buruzko arreta piztu eta barruak mugitu nahi dituen lana izango dugu gaurko proposamen nagusia.

Hala ere, betiko legez, errepaso txikitxo bat emango diegu baita ere, hilabete honek ekarri dizkigun beste programa (betiere nire ustean) aipagarrienei. Netflixen aldetik dudoso iruditzen bazait hau egiteko momentu eta modua, Estatu Batuetan gertatutako inguruan sortutako *Blacklivesmatter* mugimenduari izen bereko sekzio berriari aurkitu daitezkeen hainbat telesail, pelikula edota dokumental ikustea gomendatuko nuke biziki, beharrezkoa baitugu (pluralaren erabilera betiere nire buruari egiten diodan kritika da, modu berean inguruko besteak bertan sartu nahirik), gure arrazakeria sistematikoaren aurkako perspektiba berrikusi, aztertu, hausnartu eta ahal dugun heinean gure inguruan eta egiteko moduan benetako aldaketa bat sortzearen.

Gainerakoan, *Marcella* telesail bikainak bere hirugarren denboraldia estreinatu du ere Netflixen; Movistar+ kateak *Mira lo que has hecho*, Berto Romeroren azken denboraldia ere atera du airera; HBOk Perry Mason pertsonai mitikoaren telesail berri paregabea estreinatu du, ez galdu hau ikusteko aukera; *The Chi* handia ere bueltatu zaigu Showtime/Movistar+ kateetan hirugarren denboraldi berriarekin; eta beste alde batetik hileko azken egun hauetan, *Search Party* arraroa, *Dark* eroa eta *Doom Patrol* frikia ere iritsiko zaizkigu. Beraz, guztiontzako moduko telesail ezberdin baina ederak.

Orain, gaozen mamira. Gaurko telesailari buruz hitz egiteko, bere sortzaileari buruz hitz egitea komeni zaigu. Bertan ikusiko dugunak, bere bizian badu eta oinarri. Berari gertatutako esperientzia, eta gerora beste pertsona gehiagorekin hitz egin ostean, sortutako kontakizuna baitugu hau. Michaela-Moses Ewuraba O Boakye-Collinson (1987) aktore, gidolari, olerkari eta kantautorea, profesionalki Michaela Coel izenez ezaguna, dugu produzio honen sortzaile, idazle, ko-zuzendari eta protagonista. Bera ezagutzen ez baduzue, apuntatu bere izena, Ingalaterratik etorritako ahots gazte berri eta handien artean kokatzen baita sortzaile paregabe hau.

Aurretik hainbat arlo eta lanetan ibilitakoa bazen ere, bere gaztaroan oinarritutako *Chewing Gum* telesailarekin eman zen ezagutzera 2015ean, BAFTA sari britaniko famatuaren saritua izan zen proposamen bikainarekin, gerora *Black Earth Rising* potentean edota *Black Mirror* ezagunean ikusteko aukera izan dugularik. Dena den, aurreko horien artean eta gaurko telesailaren artean bi urtetako tarte bat izan zen, bere lana askok arrarotzat jotzen zutelako. Eta hor dago gakoa, denbora horretan, gaur ekarri dudana telesailaren prestakuntzan buru belarri sartu baitzen Michaela.

'I may destroy you', tematika gogorreko telesaila *I may destroy you* dugu gaurko proposamenaren izena. Tematika gogorreko telesaila izango dugu gaur jorratuko dugun hau, aktoreak berak 2016an jasandako eraso sexual baten ostean sortutako lana baita. Gori-gorian dugun gai bat izanda,



'I may destroy you' telesailaren irudi bat, Michaela Coen sortzaile eta protagonistarekin (eskuinean).

iruditzen zait badela aproposa halako temak mahai gainean jartzea. Bere ekuadorrera iritsita dagoen programa honetan, ez dugu bakarrik jakingo Arabella protagonistak jasandako erasoari buruz, bere inguruan dauden Kwame lagun homosexualak eta Terryk bizitako arazoei eta egunerokotasunean normaltzat hartzen diren momentu deseroso eta erasoei so egiten die modu berean, askotan aztertu nahi ez ditugun jokamolde eta situazioak modu irekian tratatzen dituelarik.

Lehenengo atalean, Arabella idazlea ezagutuko dugu, Italiara egindako bidai baten ostean Londresera itzultzen dena, bigarren nobelaren idazketan murgildurik dagoena; eta lehenengoaren arrakastaren bueltan ezin aurrera eginik, blokeo puntuan, lagunekin trago batzuk hartzeraz abiatuko da. Hemen hasiko da dena. Parranda gauaren joan etorriak ikusten ari garela, pantaila beltzaren agerpenak hurrengo goizera eramango gaitu, eta puntu honetatik aurrera hasiko dira arazoak. Aurreko gaua ez gogoratzea, zauri bat buruan,

mobilaren pantaila hautsia, flashback solte aztoratzaileak... *Spoiler*retan sartu gabe, azkar ikusiko dugu zerbait ez dagoela ondo, hortxe amaitzen delarik 30 minutu irauten duten kapituluetan lehena. 12 kapitulurekin osatuko den denboraldiak, astelehenetan estreinatzen du kapitulu berri bat HBO plataforman; ekainaren 7an hasi zen.

Aipatzekoa iruditzen zait telesailak eraso honen inguruan montatu duen kontakizuna. Gure protagonistak jasan behar duen prozesuaren tratara. Nola inongo momentuan ez den gertatutokik ezkututzen eta biktimismo papera, askok jokamoldetzat hartzen dutena, alde batera utzita; nola modu gordinean tratatzen dituen hainbat situazio, kanpotik askorentzat ikusezinak direnak. Esan bezala, gainera, ez da bakarrik Arabellaren arazoetan geldituko, LGTB+ taldeetan gertatzen diren situazioak ere azalduko zaizkigu, eta beste hainbat puntu jorratuko dituen telesaila da.

Proposamen indartsua, bai. Baina iruditzen zait beharrezkoa den horietako bat dela.

Fikzio hauek baitira gure egunerokotasunean gertatzen eta ikusten ez ditugun arazo asko mahai gainera ekartzen dituztenak. Gure burua modu kritikoan aztertzen eta hausnartzen laguntzen digutenak. Bageralako, admititu dezagun denok,itsuak edo ezjakinak, eta bade-lako garaia honelako arazoei tinko eutsi eta egin beharreko lan propioari modu indartsuan eusteko: bakoitzak, familian, lagun artean eta gure komunitatean. Eta ez dezagun ahaztu, gizonezkoek egin behar dugun eginbeharra da. Gure gizartea aldatu eta moldatzeko aurrerapauso bat emateko garaia da eta. Horregatik eskertzen ditut nik telesail puska honen antzerakoak. Autore indartsu batek, horrelako egoera suntsigarri baten aurrean, modu ausartean sortze prozesu bati eutsi, eta maisulan bat gurera ekartzea. Honek dakarren guztiarekin.

Bakoitzak aukeratu dezala, telesail honi aukera bat eman ala ez. Nik, edonork galdetuta, biziki gomendatuko dizuedala argi geratu da. Besterik ez oraingoz, hurrengora arte. **K**

SETIEN SAGARDOTEGIA

IREKIERA: UZTAILAK 3

Udako menua Ostiral gaua, larunbat osoa eta igande eguerdia

Oztaran auzoa, URNIETA. 943 55 10 14



Lurgida aplikazio turistikoa jarri dute martxan, eta hainbat interesgune markatu dituzte Urumea bailaran

Euskal Herrian barne turismoa sustatzeko asmoz, mugikorretarako aplikazioa sortu du Udalbiltzak, eta doan deskargatu daiteke, Android zein iOS gailuetan. Webgunean ere erabili daiteke: 'www.lurgida.eus'.

URUMEA LURGIDA

Gailu mugikorretarako aplikazioa sortu du Udalbiltzak, Euskal Herrian barne turismoa sustatzeko asmoz: Lurgida izeneko aplikazioan bildu dituzte zonalde bakoitzeko interesguneak, eta horietako hainbat markatu dituzte Urumea bailaran ere.

Asteazkenean aurkeztu zuten, Andoaingo Martin Ugalde kultur parkean, Jabi Asurmendi Udalbiltzako lehendakariak eta Lamia Arcas batzorde eragileko kideak. «Euskal Herriko ondare

inmateriala eta ibilbide tematikoak proposatu ditugu Lurgidan, eta furgoneta eta autokarabanei ongietorria egiten dieten etxaldeak bildu ditugu».

Euskal Herria «beste modu batera» ezagutzeko parada, aplikazioaren bitartez

Gailu mugikorretarako dago eskuragarri, Android eta iOS sistema operatiboa dutenentzat. Eta webgunean ere erabili daiteke: www.lurgida.eus. Lau hizkuntzatan dago erabilgarri: euskera, gaztelera, frantsesa eta ingelesa.

«Euskal Herria beste modu batera ezagutzeko parada eman nahi diegu aplikazio honekin, bertako zein kanpoko bisitariei», azaldu dute. «Bultzatu nahi dugu turismo jasagarriagoa eta lurraldearekiko errespetuan oinarritutakoa; eta bide batez, tokiko ekonomiarentzat onuragarria izango dena». Horretarako, bildu dituzte ondare inmateriala eta historia zeharkatzen dituzten hamaika ibilaldi, eta ehunka udalerriren informazioa, interesgune, historia, ohitura edota jaien berri emanez. Furgoneta eta autokarabanei ere egin diete txoko berezia: «Europa mailan hain errotuta dagoen praktika horren bidez, bisitariek gaua bertan pasatzeko aukera dute, eta era berean, baserritarrek haien ekoizpenak ezagutarazi ditzakete. Horrela, KM0 kontsu-



Asteazkenean aurkeztu zuten, Lurgida mugikorrerako aplikazioa.

moa sustatu nahi dugu, lehen sektorearekiko sentsibilizazioa eta ezagutza areagotuz».

Urumea bailara, interesgune

Lurgidan jasotako interesguneetatik zenbait, Urumea bailaran bertan daude. Horrela, Goizueta,

Hernani eta Astigarragari buruzko informazioa jasotzen du aplikazioak, eta baita ibilbideak zein toki interesgarriak aipatu ere: Domiña baserria, Sagardoe-txea, Sagar Trekking ibilbidea Santiomendiko Sagardo Bidean, eta Galarreta frontoia. **K**

merezi
duzun
herria



egiteko

prest.

maddalen

ZURE LEHENDAKARIA

ehbildu